

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Nati Muguruza Alberdi

*Elgoibar,
Gipuzkoa
(1938)*

Aurkibidea



Biografia



Sallobente-Ermuaran auzoko Garagartza baserrian jaio zen. Umetatik baserrian lan egin beharra izan zuen. Gainera, bost ahizpa zirenez, etxeko eta soroko lanak edo abereen zainketa, euren artean banatu behar izaten zituzten lan guztiak. Hiru urterekin hasi zen auzoko eskolan, nork zaindurik ez omen zuelako. Bi udatan Altzolako bainuetxean lan egin zuen jangelako arduradun moduan eta handik Sigmara joan zen lanera. Ezkondu ostean, kalean jarri ziren bizitzen. [Agurne](#) ahizparekin batera egin zitzaion elkarriketa.

Zintak

EGB-068

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarriketatzailerak(k):** Agirrebeña, Aintzane - Unamuno, Arianne
- **Data:** 2010-07-27
- **Iraupena:** 72 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifiketzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Transkribetzailea(k):** Elexpuru, Juan Martin

Pasarteak

1. "Ama, hau da zuk esaten zenduan gure aitta?"

- **Erref:** EGB-068/003
- **Iraupena:** 0:02:30. **Hasi:** 00:00:56. **Bukatu:** 00:03:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Gerratik itzulera
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

Bera umetxoa zela joan zen aita gerrara. Itzuli zenean, Agurnek esan zion: "Ama, hau da zuk esaten zenduan gure aitta?". Bizi guztian gogoan geratu zitzaion aitari. Oso gogorra egin zitzaion. Natik oso memoria ona du, Agurnek ez.

2. Maistrak jipoia tinta botatzeagatik

- **Erref:** EGB-068/004
- **Iraupena:** 0:02:54. **Hasi:** 00:03:26. **Bukatu:** 00:06:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Zigorrak

Laburpena:

Nati hiru urterekin hasi zen Sallobenteko auzo eskolan. Lepoan erabiltzen zuten umeei. Lehenengo egunean tinta bota zuen soinekoan eta maistrak jipoia eman zion. Hiketari buruzko komentarioak.

Transkripzioa

- Ta zuek baserrikuak zarie, ezta? - Agurne: Bai ba…! - Ta ze rekuerto dakazue ordukua hola, txiki-txikitako… - Agurne: Bueno, ba, nik hori, juten giñala mezetara, e… ba hori, neska dexentiak hasi tta gero, sei tt’erdietako mezetara, pentsaizu, baserrittik… txingorra bazan ere, e, Nati? - Nati: Bai, bai… Nik txiki-txiki-txikittakua, ba… lenengo, juan nitzan… hika [esango dot]? - Bai, urtetzen bajatzu, esan. - Nati: Jun nitzonan, eruan najaindunen ikastolara. Bueno, juten zan… juten zonan ama, esniekin… - Agurne: Bai, kalera. - Nati: ... kalera. Eta aitta lanera, basarrixan. Eta ni lagatzen najaindunen bakarrik ba… haik eta ama etorri arte. Ta ama etorri zanian egun baten, atia jo hola, eta sustauta ikusi ninduanian, ba ein tzaban berba… ein jonan berba maistriakin, eta maistriak esan ziola ba, bueno, ahiztakin juteko. Eta oindio hiru urte ein be nagan. Ta… oin, gu baiño zaharrauk esaten jaune ba ni zela ibiltzen ninduen lepuan. Txikixa nitzalako…! Txikixa nitzalako… hain umia beste danen artian... - Bai ba… - Nati: Eta, bueno, lenengo egunian in naban ba… tinterua… badakizu mahaixak zela izate zian, lehengo mahaixak. - Agurne: Tinteruakin. - Nati: Tinteruak egote zian ta… plumia… Eta tinterua hartu, ta nola ez nakixan /enakixan/ zer zan, soiñeko zuri baten behe… jo ta dana bota, ta maistriak demaseko jipoia. - Agurne: Eman in bihar da, e…? - Baiña… baiña, bueno, maistriak berak ez zeban ba garbittu biharko! Amak garbittu bihako zetsun soiñekua! - Agurne: Bai, baiña… - Nati: Soiñekua bai, baiña lurra ere zikindu ein naban…! - Agurne: Baiña maistriak zaukazen neska ta mutil, igual berrogei. - Nati: Bai. - Agurne: Eta orduan ezingo zaban pazientzia asko euki, e? Baiña hiru urteko umia, e… jun basarritikan eta hori itteko, gogorra izan bihar da, e! - Nati: Baiña lenengo egunian, eta gero, ba, klaro… gero, ondorenian ez naban nahi juterikan, baiña, bueno, konbenzidu ein ninduen, aber ze erremeixo…! - Agurne: Bai ba… - Nati: Eta eruan ninduen, eta, bueno, hantxe, ia… - Agurne: Eta... - Nati: Aurrera, ahal genduan bezela…! - Agurne: Klaro, eta [gero hau] aurrian, nere ahiztak eta nik. Bueno, heuk esaten don hori, e? Aurrian ibiltzen… haiñu… haiñudala. - Nati: Bai. - Agurne: Aurrian ibiltzen haiñudala. E… ai, ni ez non /enon/ akordatzan, e? - Nati: Bai, bai, ni akordatzan naiz… akordatzan non… ai, hau da… ez dihardugu ondo, e? Ez dihardugu ondo. - Bai, lasai. - Nati: Bai, baiña batian hika eta bestian zuka… - Bai, bai, bardin da. - Nati: Bueno, ba, hori kendu eingo dogu bestela. - Bai, bai, trankil, gero… - Agurne: Horrek ordenauko jone, neska, gero. - Bai, gero ordenatzen dogu. - Nati:

Hikara bai? - Bai. - Nati: Hikara… hikara, nahi dozuena ordenatzen dozue? - Bai, bai, gero zatixak e… komeni jakuzenak, e… - Agurne: Klaro…! - ... hartu, ta bestiak kendu, ta… - Nati: Bueno…

3. Domeketan goizeko mezara eta gero etxe garbiketak

- **Erref:** EGB-068/005
- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 00:06:20. **Bukatu:** 00:07:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak

Laburpena:

<p>Domeketan seiterdietako mezetara joaten ziren beldur galanta pasatuz iluntasunagatik. Gero etxera etorri eta garbiketak: zoruak 'arenau', argizagia eman eta abar.</p>

Transkripzioa

Nati:-Ostantzian ba aurrera halaxe. Eta gero pixkat haudittu giñanian ba, mezia're hain zan sagraua, ba goizian jutun giñan gu bixok seitterdietako mezetara.

Agurne-Baiña txingorra bazan ere!

Nati:-Juten giñunazenan eta eitten gendunan 'meza-txandia' esaten zakona.

Agurne--Bai. Eta zelako sustuak pasatzen genduzen bidian!

Nati:-Bai. Ba batian bata zatorren bizikletan poliki-poliki argixakin gabian eta bajatzen giñan San Lorentzoraiño farolakin eta gero handik behera oiñez baiña argirik gabe, eta baten bat jutun baldin bazan goizian lanera edo bizikletiaikin atzetik, eta igual poliki-poliki zixenian ba sustuak hartzen genduzen. Eta goizeko seitterdietan igual neguan ere...

Agurne--Pentsau geure ondoren zatorrela, ta holaxe. Baiña billurrez aidian, e! Bueno, nik pentsatzen dot orduko meziak oinguan doblia balixo zabala.

Nati:-Bai, eta gero seitterdietako mezia entzun, etorri etxera, eta gero bestiak jutun zian mezetara eta guk eitten genduzen etxeko lanak. Gaiñera lehen dana zan arenau lejiakin ta hondarrakin. Eta habitaziuetan dana "cera de palo" esaten zakona. Eman zepillua, alanbria, eta astian behin demaseko garbittua etxieri.

4. Ardiak lotura handia dira

- **Erref:** EGB-068/006
- **Iraupena:** 0:02:20. **Hasi:** 00:07:40. **Bukatu:** 00:10:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Artzaintza

Laburpena:

Bost ahizpa dira, anaiarik ez. Behiak eta ardiak zituzten; ardiek asko lotzen zuten. Kendu zituztenean poz handia hartu zuten. Saldu zituzteneko anekdota.

Transkripzioa

- Agurne: Klaro, eta gero ba ganauak zauden, eta jun in bihar zan nabua ataratzerare, nahiz ta egon... izoztuta.
- Nati: Batzuetan nabua, ta beste batzuetan bedarra, ta beste batzuetan... Gaiñera giñan bost neska, ez zauan /etzauan/ mutillik.
- Danak neskak?
- Nati: Danak, basarrixan danok neskak giñan.
- Agurne: Eta ardixak gaunkazen.
- Nati: Bai.
- Agurne: Bueno, el remordimiento del... de de nosotras.
- Nati: Ardixak... ardixak izen zian...
- Gerra haundixa emate zetsuen?
- Nati: Gerra haundixa.
- Agurne: Bai, bai, bueno, bueno, bueno...
- Nati: Agurne, pero es... baiña da pena bat ez dogula /eztoulara/ itten hika.
- Agurne: Bueno, baiña... a ke... ardixak saldu zian egunian hartu honala e... egundoko poza.
- Nati: Sekula baiño haundixaua. Es ke ardixak zauken sujezio haundixa.
- Bai ba...
- Nati: Eskolatik etorri tta ardittara, ta eztakit nora... eskolara aurretikan, ba ya ardixen esnia ekarri bihar zan, eta ez dakitt... beti ardixak. Eta ailegatzen zan jaixa eta baten bat jun bihar zan. Eta honek haundixauak zian eta juten zian ba...
- Agurne: Erromerira.
- Nati: ... erromerira ta jolastera, ta ni juten nitzan ardixetara, ta... Baiña politta izan zan, ardixak saldu genduzen, ba piñu puntak jaten zittuela, auzokuak piñu puntak...
- Sartu berri...
- Nati: Piñua sartu eta piñu puntak ebaki itten zittuela eta, bueno, kendu in bihar ziala. Bueno, ba jun giñan Azkoittira aitta ta bixok ardixekin, eta... ba jun gin... aa beste mutil batzuk ere bai, beste bi anai gazte. Baiña gero saldu genduzen, eta bazkaldu gendun [alkarrekin].
- Agurne: Gure anaiak ez, e? guk ez dakagu anairik.
- Nati: Beste auzo batekuak zian, Azkoittikuak. Eta... jun zan... bi urte ez dia /eztia/ ondio, geunden Otarren, eta esaten deu mutill batek, ba hori, gure aittak motia zaukan `Maketua´, eta “Ene, `Maketua´, ze ezauna...! Harek alaba bat zaukan ba, Nati, ardixak saldu genduzenian!”
- Beittu...
- Nati: Ta nik esan nion “Ba hori ni naiz”. Ta “Zu zara haura, gurekin bazkaldu zenduna?” ta “Bai”. Ta bueno...
- A, beittu...
- Agurne: Kasualidadiak... de la vida.
- Nati: Igual, ba... berrogeita urtietara topau giñan, bai. Bera andria...
- Kasualidadez, gaiñera, ezta?
- Nati: Bai. Bera andriakin eta... gu ere bai. Eta, bueno. Ta gero harek kendu zian, eta gero ba... lanera ta...

5. Ahal zen azkarren ekarri behar umeak

- **Erref:** EGB-068/010
- **Iraupena:** 0:01:34. **Hasi:** 00:11:56. **Bukatu:** 00:13:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak

Laburpena:

<p>Ezkundu ziren eta ekarri zituzten umeak. Ahal zen azkarren ekarri behar ziren orduan, ez zen orain bezala. Bizimodua zeharo aldatu da, ez daki onerako ala txarrerako. Orduan errespetu handia zegoen etxean.</p>

Transkripzioa

Eduarne:-Eta gero hori. Ezkundu giñan eta, Nati, ekarri gendunazenen umiak...

-Zuen sasoiak umia eukitzia ta haurdun egotia ta zela izaten zan?

Eduarne:-Euki in bihar zan; derrepente ez bazenduan ekartzen, ematen zaban ez zenduala balio. Ez da oin bezela, programauta dauala dana.

-Lehen ezkontuta segiduan ekartzen zan...

Eduarne:-Ahal zan azkarren, ahal zan azkarren.

-Puxkat tardau ezkerro ya, horrek ez dau balio.

Eduarne:-Ene, horrek ez dau balio. Hola zan, e. Eta oin enkanbio esaten debe ezkontuta, bueno, aprobe txau in bihar dou oin urte batzuk, ondo pasatzeko eta. Baiña ez, oso diferentia bizimodua. Beittu, gu gaztiak giñanetik hona "ciento ochenta grados" esaten dana kanbixau da. Oin, ez dakit onerako o txarrerako, e! Batzuetan pentsatzen dot ez dala hain onerako ere. Zegatik oin dauan beste libertade ez zauan lehen eta.

Nati:-Eta lehen zeuan errespetu haundixa etxian. Eta esaten zebe, halako ordutarako etorri bihar dozu eta halako ordutarako etorri bihar giñan. Eta angelusa hamarrak inguruan, ordua zan etxeratu bihar ziñana.

Eduarne:-Enkanbio oin eitten debe gaupasa, bi gaupasa igual, zeatik nik nere etxetik ikusten dittut, hor Guass-a egonda ez, horren kontra. Bueno, "unos panoramas...".

6. Dantza lotua debekatuta Azkoitia partean

- **Erref:** EGB-068/011
- **Iraupena:** 0:00:52. **Hasi:** 00:13:30. **Bukatu:** 00:14:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren indarra

Laburpena:

<p>Gaztetako erromeria lekuak: Kurutzeta, Irukurutzeta, Sallobente. Kurutzetan, Elgoibarko partean, 'agarrauan' (dantza lotua) egiten zen eta Azkaraten edo Madariagan, Azkoitia partean, oster, debekatuta zegoen.</p>

Transkripzioa

- Eta zuek nora joaten ziñen?

- Agurne: Gu?

- Nati: Kurutzetara eta San Lorentzora erromerixara.

- A.: Erromerixara baiña. Kurutzetara eta. Egun baten nere semiak esan zian: ama, lehen erromerixara juten ziñan, ez?, eta bai. Eta nora? Batian Kurutzetara, edo Irukurutzetara ere, ta. Ze nahixaoko neuke nik oin egotia hori! Horrek erromerixa horrek.

- N.: Erromerixara, Sargoatera Santixauetan, Irukurutzetara zerian,

Santakrutz egunian...

- A.: Baina bestela Kurutzetara.

- N.: Hori, Kurutzetara. Eta San Lorentzon'e egoten zan batzuetan.

- A.: Eta Kurutzetan, begira, Elgoibarko partian agarrauan itten zan, eta Azkaraten partitzen zan, Aizkoitixan ez zan itten agarrauan. Madarixan prohibiduta zeuan.

7. Eskola erretratua

- **Erref:** EGB-068/014
- **Iraupena:** 0:01:54. **Hasi:** 00:16:32. **Bukatu:** 00:18:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Euskara » Tratamenduak

Laburpena:

Eskolako argazki baten aurreko komentarioak. Tarteka hika berba egiten dute.

Transkripzioa

- Nati: Honek... Maalako moja, seguru asko.
- Agurne: Honek San Pedro baillarakuak izango dittun. Honek ez dittun / eztittun/ e... Salorentzo baillakuak, e?
- Nati: A, hemen jarriko jon. "Goitik behera, ezkerretik hasitta"...
- Agurne: Eskoletako...
- Nati: Erretratu [...]
- Agurne: Erretratu [...] Ful Etxaniz.
- Nati: A, bai, gure auzuan bizi da.
- Agurne: Aber... "Ful Etxanizek lagatakoa daukagu erretratua", 1923koa. "Eta bertan, azaltzen dira:" e... "mutikoak, ospitaleko monjen" e... zerian.
- Nati: [...]
- Agurne: Bai, "eskolan zebiltzen" dira, zebiltzen...
- Nati: Bai, bai...
- Agurne: Baiña nik ezautu hor... ba ezta... hik ezautzen don?
- Nati: Ez... Hain umiak ez jittunat nik iñor ezautzen.
- Agurne: Es ke Ful... e... igual hementxe daon Ful.
- Nati: Igual holakon bat... Baiña hemen jartzen deu, e, zeintzuek
- Agurne: Lelengo illaran.
- Nati: Lelengo illaran, "Juaristi Arguinga", a, bai, horrek ere ezaunak... "Jose Aizpitarte (Kakatz), Jose Elgoro-Irribere"...
- Agurne: A, baiña lelengo illaran?
- Nati: "Emeterio Uria"... bai... baiña horrek danak ezaunak. "Kalisto Zubiaurre", beittu.
- Agurne: Aber, zein? hurrengua.
- Nati: Zenbagarrena...? Bai, bi, hiru, lau, bost.
- Agurne: Hau, Kalisto Zubiaurre, ez?
- Nati: Bai, bai...
- Agurne: Eta... bueno...
- Nati: "Miguel Garate (Kaminero), Pedro Bastida, Paco Elorza eta Prudencio..."
- Agurne eta Nati: "Prudencio Zubiaurre"!
- Agurne: Bai, Zubiaurre ez don /ezton/ baiña zuena.
- Nati: Guria ez... ez... Gehixenak ezaunak, e? Klaro, honen lagunen gurasuak, hortxe-hortxe, gure aittan edade ingurukuak honek danak.
- Agurne: Bai, bai, bai, bai, bai... aber...

8. Miren Katherine Agurne

- **Erref:** EGB-068/016
- **Iraupena:** 0:00:57. **Hasi:** 00:20:12. **Bukatu:** 00:21:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika

Laburpena:

<p>Miren Katherine Agurne du izena Agurnek. Natiri Jaione ipini nahi zioten baina ez zioten utzi.</p>

Transkripzioa

- Agurne esan dozu, baiña izena ez dala Agurne bakarrik. Luziagua dakazu.
- Bai, beste bat. Rosario...
- Nati: -Ez. Miren Agurne Katherine. Daneri jartzen zakuen lehen, Miren edo

Maria.

-Ba eon gera herrixan hiru bakarrikan izen honekin.

-Eske rarua da...

Agurne: -Baiña oin bai, oin ipintzen jakue. Periodista bat ezautzen dot gaiñera Motrikukua edo, Miren Agurne. Ezautzen dozu?

-Bai, bai.

-Je-je. Entzun nionian hari talebistan, beittu, ni bakarrik ez naiz, e.

-Eta zuri esan dozu Jaione nahi zetsuela ipintzia.

-Etxian, baiña beti Nati izan naiz. Ez ziu en utzi amari.

9. Baserri ugari orain Elgoibarko kalea den lekuan

- **Erref:** EGB-068/018
- **Iraupena:** 0:01:21. **Hasi:** 00:21:52. **Bukatu:** 00:23:13
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak
- Euskara » Bilketa linguistikoa » Toponimia

Laburpena:

<p>Oso auto gutxi zegoen orduan Elgoibarren. Guztiz aldatuta dago herria. Hainbat baserri zegoen orain kalea den lekuan: Etxezuri, Toletxe, Usetxe, Artetxe...</p>

Transkripzioa

Nati: -Bi edo hiru kotxe ezautu douz Elgoibarren guk.

Agurne: -Beitu, begiratzen dozu nere balkoitik horra aurrera, eta lehena ikusi bazendu, lehengo fatxadia horkua, esango zenduke: hau totalmente aldatu da. Bueno, "irreconocible".

Nati: -Bai, ez dao oin ezautzerikan. Baserrixak zeuden. Etxezuri, zauan Toletxe, zauan Usetxe, zauan Artetxe... Pentsau zenbat baserri zauden hemen.

-Baserrixak zian?

Nati: -Hemen zeuan Toletxe, hemen zeuan Etxezuri.

Agurne: -Bai, baiña gero taillar bi; Fundiciones...

Nati: -Geruao, baiña guk ezautu dou horrek danak. Ezautu dou Usetxe ta ezautu dou Artetxe. Danak baserrixak.

-Eta hemen etxerik bestela ez zan egongo.

Nati: -Ez. Gero gero hasi zian, hau Torria. Gero hamen taillerrak in zittuen baserrixen bittartian, eta Alba, Arana, horrek.

Agurne: -Bat zauan zahar-zaharra taillarra... Ta gero akordatzen haiz zela ipiñi zebe garajia. Guk ere euki gendunan hor kotxia. Goixan zahar-zaharra, behian aterpe batzuk, eta hola. Total-total-total bota egin, etxe berrixak in dittue...

10. Nati Altzolako bainuetxean zerbitzen

- **Erref:** EGB-068/021
- **Iraupena:** 0:02:20. **Hasi:** 00:25:52. **Bukatu:** 00:28:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Neskameak

Laburpena:

Altzolako bainuetxean egon zen Nati jangelako buru gisa. Ezkontza-bazkari bat eskularru zuriekin zerbitzatu zuten. Harizko mantelak eta zilarrezko tresneria... oso dotorea zen dena. Entremesak, zopa, otarraina, legatz-buztana.. Aspertu egin zen eta Sigmara joan zen lanera.

11. Serorak zeraman elizako martxa

- **Erref:** EGB-068/023
- **Iraupena:** 0:03:04. **Hasi:** 00:28:54. **Bukatu:** 00:31:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Kongregazioak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:

Serora ezagutu zuten. Elizako ardura eramaten zuten serorek: argitakoa batu, mezak apuntatu... Luistarrak eta Mariaren Alabak. Dotore janzen ziren neskak zein mutilak elizara joateko. "Meza-txandia" deitzen zioten familiako batzuk meza batera joan eta besteak beste batera joateari.

12. Kortako kakapilara jausi Agurne

- **Erref:** EGB-068/024
- **Iraupena:** 0:01:51. **Hasi:** 00:31:58. **Bukatu:** 00:33:49
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

<p>Baserriko lan guztiak egiten zituzten ahizpek. Behin, behi bat mugitu ezinik tiraka eta bultzaka ziharduten eta Agurne kaka pilara jausi zen. "Harrapatzen bahaut akaau eingo haut" esaten zion Natiri.</p>

Transkripzioa

-Gizonezkuen lanak eittia tokauko jatzuen.

Agurne: -Jesus!

Nati: -Esan deuna. Etxeko lanak in lelengoti, eta gero ba solora; ba izaten zan nabua edo artua edo erromalatxa edo...

Agurne: -Baiña nik badakit behixak jazten ere. Neri tokau jata behixak jartzia. Eta honek...

Nati: --Ez zauan mutillik eta ein in bihar genduan.

Agurne: -Honek sokatik tira eitteko behixai eta jun nitzan etenda kakapilla haundi batera sartu (barre).

-Honek tranpia ein zetsun?

Agurne: -Beittu [...] behi bat, ezta, sokatik. Derrior eruan bihar zan sokatik, eta kortara sartzerakuan ez zaban nahi jun, eta esaten diot: "Nati, eraixon!", eta honek esaten zian: "Tira eixon sokatik!", eta "eraixon" eta "tira eixon", etetzen da sokia, eta jota atzeraka-atzeraka-atzeraka, kortan

aeuan kakapillarik haundiñian sartu nitzan (barre). Bueno, hau etxaburuan gora ihesi eta ni ondorian. Bueno, nik harrapatzen det orduan, txiki-txiki... Nati: -"Harrapatzen bahaut akaau ingo haut!!" (barre). Penia da 'zuka' eittia.

Agurne: -Ez dou in zuka, "harrapatzen bahaut" ez da zuka. (Barre). Eta holako urteerak. Holako urteerak geunkazen ba pillo bat. Bueno... Beste baten asto gaiñian ipini ninduen eta. Orduan partian

Nati: -Tio Txomin zana zan partian.

Agurne: -Tio Txomin eta hi're. Akuluakin erani-erain astuari ta ni poliki-poliki, toka-toka-toka azkenian goittik behera. (Barre). Jausi

13. "Txingorriñian" eta sokasaltoan

- **Erref:** EGB-068/025
- **Iraupena:** 0:01:13. **Hasi:** 00:33:49. **Bukatu:** 00:35:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:

<p>"Txingorriñian" lustre kaxa batekin egiten zen, hanka baten gainean. "Pasa-misi", sokasaltoan. Dena erdaraz egin behar zen.</p>

Transkripzioa

Jolasian-eta zer egiten zenduen?

Agurne: -Bueno. Dantzaz ez bada, zer itten genduan guk?

Nati: -Eskolan eitten gendun sokasaltuan, txingorriña, pasa-mixi, ez dakit zer, bueno...

Agurne: -Etxian ez jaonan /etxaonan/ astirik.

Nati: -Etxian ez, etxian ez zauan astirik jolasteko. Rekreuan.

Agurne: -Etxera etorritakuan lanak in bihar zian.

-Zer zan txingorriñian?

Agurne: -Ez dakizu? Hori izaten da arraixa batzuk einda hola, lustre kaja batekin.

Nati: -Bai. "A primeras" edo da hori.

Agurne: -Guk erakutsi biharko janau honi.

Nati: -Hori "A primeras" da, uno, dos, tres...

-Hanka baten gaiñian...

Agurne: -Bai, hori. Geuk erakutsi bihar janau honeri jolasian.

-Eta "pasa-misi" esan dozuna?

Nati: Hori? Sokasaltua, jarri hola sokia eta "pasa-misi" bere kantuekin eta gero "Al pasar la barca" eta ez dakit zenbat...

-Kantuak erderaz esaten zien?

-Danak; dana erderaz eitten genduan; ezin zan ein euskeraz.

14. Maistrak atzamar puntetan egurra Natiri

- **Erref:** EGB-068/026
- **Iraupena:** 0:02:43. **Hasi:** 00:35:02. **Bukatu:** 00:37:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Zigorak

Laburpena:

"Rosarito" deitzen zion maistrak Agurneri. Gerora ere bai. Sallobenteko eskola argazkia. Zitala ei zen maistra baina hainbeste jende menderatzea ez zen erraza. Natiri makilaz eman zion behin behatz puntetan beste baten erruz.

15. Maistrak bizitza guztia Sallobenten

- **Erref:** EGB-068/028
- **Iraupena:** 0:01:35. **Hasi:** 00:39:25. **Bukatu:** 00:41:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak

Laburpena:

<p>Cara al Sol egunero abesten zuten. Maistrak ez zien zigorrak ipintzen euskaraz egiteagatik. Donostiarra zen maistra. 18 urte ingururekin etorri eta bizitza guztia Sallobenten eman zuen. Apopilo kale-baserri batean.</p>

Transkripzioa

Agurne: -Francon banderia atara, e, Nati, eta 'Cara al Sol' egunero.

Nati: -Egunero abesten gendun 'Cara al Sol' eguerdixan, eta goizian jun eta Aittiaren einda eskolan hasi.

Agurne: -Hori zan...

Nati: -Eta gero 'Cara al Sol' abestu ta etxerutz. Hori egunero.

-Zigorrak ipintzen zetsuen euskeraz eitte arren?

Nati: -Ez. Hori... Nik usten dot zer itten zabala.

Agurne: -Konprendidu. Berari in ezian...

Nati: -Bai. Giñala euskaldunak eta berari erderaz in bihar giñuala baiña.

Bai, hori ze itten zaban, bai, rekonozitzen zaban hori, bai. (...). Bai baiña bera Donostitik etorri zan eta.

Agurne: -Ba pentsaizu, etxe baten egon zan haura..., apopilo egon zonan ba haura, ez?

Nati: -Klaro, haura etxe batera etorri zan eta hantxe pasau zittuan urte guztiak eta jubilau ta dana hantxe in zan.

Agurne: -Larogetamar urte arte, hantxe.

-Nati: -Ba haura igual etorriko zan...

Agurne: -Hemezortzti urtekin.

Nati: -Orduan Magisterio ez zan izango gaurko bezelako... Baiña bazeukazen bere... estudixuak, bazeukazen. Donostiatik hola etortzeko, pentsaizu.

-Eta zer egon zan, auzoko baserriren baten edo apopilo...

Nati: -Bueno, basarrixa ez zan, kale-basarrixa zan.

Agurne: -Baiña aldatu be (gabe) leku baten denpora guztia.

16. Eskolako materiala, ikasketak eta lanak

- **Erref:** EGB-068/029
- **Iraupena:** 0:03:04. **Hasi:** 00:41:00. **Bukatu:** 00:44:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikasgaiak eta ikasmateriala

Laburpena:

Liburuak eta mapak baziren eskolan. Gero bakoitzak "Entziklopedia" izaten zuen, Historia, Geografia, Historia Sagrada eta horrelako gaiekin. Mahaia, tintontzia eta luma. Josten ere ikasten zuten. Urtean behin herriko agintariak etortzen ziren eta saritxoak banatzen zituzten.

17. Dotrina "puntatik hondoraiño" ikasi behar

- **Erref:** EGB-068/031
- **Iraupena:** 0:01:08. **Hasi:** 00:44:22. **Bukatu:** 00:45:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Doktrina

Laburpena:

<p>Dotrina "puntatik hondoraiño" ikasi behar zen. Natiren jaunartze taldea txikia izan zen, gerra ostea zelako.</p>

Transkripzioa

-Gero dotriña be ikasi biharko zenduen, ez?

Nati: -Uuu! Hori zan sagraua. Dotriña zan ezer baiño sagrauaua. Dotriña bai puntatik hondoraiño.

Agurne: -Haura ikasi bihar zan... Ez zion inporta matematikak ez jakitzia, e. Baiña dotriña hori jakin bihar zan ondo.

-Baiña dotriña maistriak erakusten zotsuen?

Nati: -Ba dotriña...

Agurne: -Ez, abadia etortzen zan.

Nati: -Irakortzen ikasi genduanian dotriña... Maistriak ere galdetzen ziun. Eta gero etortzen giñan hona sakristixara ere komuniua eitteko, apaizekin egoteko ta. Lehen itten zan komunio txikixa zazpi urtekin eta gero itten zan komunio haundixa hamar urtekin. Ta gu gerra ostekuak nola giñen hiruk bakarrikan euki genduan komunio txikixa. Eta komunio haundixan ere oso gitxi egon giñan gu. Eta ni ipini ninduen aurrenengo txikiña nintzalako. Eta beste lagun bat ere. Honek haundiñak zielako azkenak.

Agurne: -Gutxi jaten zonan eta... (barre).

Nati: -Bai, baiña dotriña oso sagraua zan, ondo ikasi bihar genduan.

Agurne: -Bueno, atzekuaz aurrera ere bai, e! Boj!

18. Arenatzen

- **Erref:** EGB-068/033
- **Iraupena:** 0:01:15. **Hasi:** 00:46:03. **Bukatu:** 00:47:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak

Laburpena:

<p>Zurezko zoruak eta arasa "arenau" egin behar izaten zen, hondarrez lurra igurtzi.</p>

Transkripzioa

Agurne: -Eskillaria areniakin, e.

Nati: -Baitta zera ere, sukaldeko armaixuak eta arasia.

Agurne: -Bai, hori bai.

Nati: -Arasia zan armaixo batek zaukazen hola..., platerak ipintzeko lekua, behian tazak ipintzeko lekua, beheraguan basuak ipintzeko lekua. Ta gero zan armaixo gaiña, bi kajoe armaixuak, ta behian ba bi ate. Ba haura dana arenau in bihar izaten gendun. Ta fregaderian..., su gaiñian azpitan zauden atiak, fregadera azpita, gero beste ontzi batzuk ere egoten ziena, egurra egoten zana, horrek danak arenia eta lejiakin garbittu bihar izaten genduzen.

Agurne: -Eta eskillaria.

Nati: -Eskillaria ere bai.

Agurne: -Ostian argizaixa.

-Nundik ekartzen zan arenia?

Agurne: -Hondarra zan, hondarra zan arenia esaen deuen. Saldu itten zeben.

Nati: -Lejiakin haura garbittu ta gelditzen zien zuri-zuri. Eta gero harek zaukazen, arasia esaten diunak holako kortiña txiki batzuk kuadruak, hola izurraikin ipinita, ta harek plantxau ta astebukaeran ipini...

-Agurne: -Ikusiko zenduezen horrek antigualeko armaixo horrek, eta dakaznak puntilla txiki batzuk batzuk kuadruak eta beste batzuk zurixak eta.

19. Plantxa mota ugari

- **Erref:** EGB-068/034
- **Iraupena:** 0:01:35. **Hasi:** 00:47:18. **Bukatu:** 00:48:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea

Laburpena:

<p>Barruan txingarra ipinitako plantxekin lisatzen zuten sasoi batean. Erromeriarako joateko kankana, adibidez. Su gainean berotzen zirenak, elektrikoak eta lurrunezkoak ere ezagutu ditu harrezkero.</p>

Transkripzioa

Nati: -Eta plantxau, lehengo plantxak tximinixia zauken harekin. Brasia botata barruan, eta erromeixara juteko kankana plantxau bihar izaten zan. Igual eukiko genduzen bi bata bakarrikan. Baiña orduan modia zan. Eta harekin, plantxa harekin plantxatzen. Haura zabaltzen bazan beheko ze haura kankana dana beltzittu ta hola ibiltzen giñan.

-Holako plantxia zakazuen?

Nati: -Bai. Nik ezagutu dittut haura kee hori, brasia sartutakua, su gaiñian berotzen zien plantxak, eta gero elektrikuak baporrik be, eta gero baporduna. Honek'e hola ezautuko zittuan.

Agurne: -Seguru.

Nati: -Ez haiz akordatzen... (penia daukat hika ein eza).

Agurne: -Badihardugula hika. Ez haizen akordatzen, zer?

Nati: -Hi ez haizenan akordatzen harek tximinixia zeukan plantxa harekin?

Agurne: -Bai, honbre! Haura deskuidatzen bahintzanan prasia urtetzen jaonan handik.

Nati: -Hori ba, esaten jonat ba.
Agurne: -Ta erre erropak.
Nati: -Ta ze pena!
Agurne: -Honbre! Lehen gitxi ta.
-Kankanakin joaten ziñaten orduan erromerixara?
Nati: -Nik euki naban.
Agurne: -Nik ez naban euki.
Nati: -Nik euki naban kankana. Gero hola nitzan. Ta soiñokua ba izurrakin, eta kankana almidoiakin plantxau ta harek ba buelua ematen zion, eta haura ondo zainduta.
Agurne: -alegiña inda.

20. Oinetakoak

- **Erref:** EGB-068/035
- **Iraupena:** 0:00:47. **Hasi:** 00:48:53. **Bukatu:** 00:49:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak

Laburpena:

<p>Abarketekin joaten ziren erromeriara. Beste oinetako klase batzuk: ponpoedun zapatilak, gomazkoak, larruzko zapatak...</p>

Transkripzioa

-Abarketekin ala zapatekin zuek?
Nati: -Abarketekin. Abarketak.
Agurne: -Eta neguan kalbaixuak egoten zian, eta kalbaixuetara -horrek zuk ez zenduzen ezautuko-. Zapatillak zian hola "de paño" ez, kolorietakuak, eta gero zaken gaiñian ponpoe bat. Hola ponpoe bat oso politta. Ba haretxekin, baitta edurra bazan'e haretxekin.
Nati: -Eta gero zauden zapatak, baiña gomazkuak... Bueno, gero narrua be ezautu genduan. Baiña mokasin tipora gomazkuak. Baiña gero ya erromeixara ta hasi giñaneako ya pasauta...
Agurne: -Zapatak.
Nati: -Eta komuniorako ta ya zapatak zian. Hori komunio aurretikan zian zapata horrek.
Agurne: -Gero modernizatu giñan, asko (barre).

21. Zinea, dantza, eta ordurako etxera

- **Erref:** EGB-068/036
- **Iraupena:** 0:02:45. **Hasi:** 00:49:40. **Bukatu:** 00:52:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:

<p>Kurutzetako erromeriara joaten ziren dantzara. Nobioa aurkitu aurretik, Elgoibarko berdura plazan egiten zen dantza. Nati dantzaldiaren aurretik zinera joaten zen. Gero bederatzi pieza jotzen zituzten plazan, eta gero saltaka baserrira, ordurako heltzeko. 4 km daude kaletik etxera. Hala ere

pozik. Gelatxo-eta izaten ziren musikariak. Baltsak, pasodobleak, tangoak... jotzen zituzten eta trikitiak ere bai.</p>

22. Nati Donostiara izebaren etxera oporrak pasatzera

- **Erref:** EGB-068/037
- **Iraupena:** 0:02:15. **Hasi:** 00:52:25. **Bukatu:** 00:54:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Oporrak

Laburpena:

Agurne hogeita bost urterekin joan zen lehenengoz hondartzara. Nati umetan Donostiara joaten zen oporretan izebaren etxera eta han bainatzen zen lehengusinarekin bainu-jantziarekin. Agurneren alaba ere joaten zen. Behin ahatetxoa oparitu zioten honi, etxera ekarri eta berehala hil zen.

23. Argizaria ematen

- **Erref:** EGB-068/040
- **Iraupena:** 0:01:21. **Hasi:** 00:57:22. **Bukatu:** 00:58:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak

Laburpena:

<p>Argizaria eman aurretik ondo garbitzen zen zorua alanbrez. Astero ematen zitzaion argizagia. Hiru ahizpa zaharrenak jarduten zuten, gehienbat.</p>

Transkripzioa

Nati: -Ba argizaixa emateko zan hola tokor bat, eta zauan makilla bat; han sartzen zendun haura tornilo batekin lotuta, eta ematen zenduan arraixara hola argizaixa. Eta gero han pasatzen zenduan alanbria.

Agurne: -"Cera de palo" esaten jako ba... Honek gaztiak dia.

Nati: -Gero pasatzen zan alanbria. Ta alanbre harek ataratzen zaban zikin guztia. Ta haura eskobatzen zendun, gero argizaixa ematen zenduan. Eta gero zepillo bat zan brillua ateratzeko, haura dana garbittu ta gero ematen zan, pasatzen zan eskoboiaikin, ta zikin guztiak atera ta gero baietiakin brillua.

Agurne: -Nati, baiña ze lan zonan haura...

Nati: -Haundixa zonan baiña halaxe gerbitzen gendunan jaixan.

Agurne: -Eta gero luzera aguantatzen jonan?, ez.

Nati: -Bueno. Aste guztian ibiltzen ba, astian ez geunkanan astirik haura argizaixa emateko. Baiña geure amor propixua geunkanan astebukaeran hari garbittu bat emateko.

Agurne: -Ez donan gitxi astian behin.

Nati: -Ez, baiña... Halaxe hartu gendun ohitturia ta.

-Eta danok eitten zenduen ala txandan-txandan?

Nati: -Bueno. Hiru zaharrenak gehixen. Bestiak...

Agurne: -Bueno, gu bixok gehixen.

Nati: -Bueno, zaharrena ere bai. Danok, hirurok.

24. Ipuinak irakurtzen ganadu zain

- **Erref:** EGB-068/041
- **Iraupena:** 0:00:55. **Hasi:** 00:58:43. **Bukatu:** 00:59:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Irakurtzea

Laburpena:

<p>Ahizpa zaharrenari behiak zaintzea gustatzen zitzaion. Agurneri batere ez. Nahiago zuen aitarekin belarretan egitea. Ahizpa txikienari irakurtzea gustatzen zitzaion eta inoiz behiak ihes egiten zioten.</p>

Transkripzioa

-Ze eukitzen zenduezen, lanak banatuta? Batak soroko lanak, bestiak ganauak...

Nati: -Keba, danak, tokatzen zana.

Agurne: -Aizta zarrenari gustatzen zitzakon behiak zaintzia; irakurri eta puntua ein eta hola. Eta neri batere ez. Billlura ematen zian, zeatik behiak labainkaria ein ta, aldapia zan dana eta, jungo zialakuan goittik behera. Eta ni aittakin bedarretara nahixao naban, bizkarrian kargia ekartzia behiak zaintzia baiño. Ez don /ezton/ egixa?

Nati: -Bai. Gero txikixa zan oso, irakurtzia asko gustatzen zakona, aizta txikixena. Haura jutun zan igual behiak zaintzera holako ipuin pillia hartuta, ta igual sartzen zian ganauak artua edo garixa jaten ta haura konturau ere ez irakurtzen; hainbeste gustatzen zakon. Entzungo balitt... (barre).

25. Amak oparitutako ipuin-liburuak

- **Erref:** EGB-068/042
- **Iraupena:** 0:02:23. **Hasi:** 00:59:38. **Bukatu:** 01:02:01
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Irakurtzea

Laburpena:

Agurnek Eibartik ekartzen zituen ipuinak. Amak ere bazuen liburuak erosteko ohitura, liburu euskaldunak. Gogoan dute haren ipuin liburuak. Kaxoi handi bat ipuinez beteta zuten etxean; pena dute bota egin zituztelako.

26. Agurneren ugazaba zatarra baina jatorra

- **Erref:** EGB-068/043
- **Iraupena:** 0:01:29. **Hasi:** 01:02:01. **Bukatu:** 01:03:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Industria motak » Grabatua

Laburpena:

<p>Agurnek etxean egiten zuen grabatzen Eibarrerako. Damaskinatua deitzen zaion teknika. Ugazaba zatar-zatarra ei zen baina jatorra.</p>

Transkripzioa

-Eta zuk grabatzen?

Agurne: -Damaskinado, bai. Eibarren. Etxian eitten naban baiña Eibarko, Eibarrerako.

-Hango taillarren baterako. Ze taillerretarako?

Agurne: -Bueno. Partikularra zan, Adolfo Santos. Beittu, zan zatarra, baiña, Nati, zenbat maitte nindduan harek! (barre). Zan zatar-zatarra, holako belarrixak, eta neri "me parecía hasta guapo!" (barre). E, Nati...

-(...) Hor ze itten zenduen edo zela zan hori?

Agurne: -Bueno ba haura zan partikularra eta ni lanera presentau nitzan ta hartu nindduan, eta haretxentzako itten naban lana, ta npla?, ba ez zan izango asko baiña kobratzen naban hillian azkenian, ba nere aiztiari ekartzen nion ipuinak.

Nati: -Eta baitta telak eta ere bai, gonak... Nik euki naban gona bat honek ekarrirta telia etxian jositta. Bai. Etxian josten genduan.

-Zenbat urtekin hasi ziñan?

-Hamabost bat urte edo hamasei, ez dakit zenbat. Eta lehen gaiñera ni Eibarrera juten nitzan mordo batetan. Nakixan Eibarko barri, ta oin ez dakit ezer. Ahaztu jata dana

27. Agurne damaskinatuan lanean

- **Erref:** EGB-068/044
- **Iraupena:** 0:03:12. **Hasi:** 01:03:30. **Bukatu:** 01:06:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Industria motak » Grabatua

Laburpena:

Damaskinatua zer den azaltzen du. Berak grabatutako dortoka-erloju bat erakusten du. Eibar zen damaskinatuaren zentroa. Gero Toledon hasi ziren, baina makinaz egiten zuten lan. Urrezko hari bat ezarri egiten da lan. Prozesua azaltzen du. Auzoan ikasi zuen eta gero bere kontura hasi zen. Kanpora saltzen zen gehiena.

28. Nati esneak partitzen eskolara baino lehen

- **Erref:** EGB-068/047
- **Iraupena:** 0:01:37. **Hasi:** 01:09:37. **Bukatu:** 01:11:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Herrira saltzera, eroztera

Laburpena:

<p>Lehengo berdura-plaza askoz politagoa zen. Esnea saltzen zuten, baina berdurarik azokan ez. Nati esneak partitzen zituen eskolara sartu baino lehen. Oso goiztarrak ziren denak.</p>

Transkripzioa

Nati: -Lehen askoz politaua zan berdura-plazia oin baiño.

Agurne: -Bota egin bihar debela esate debe.

Nati: -Ez dauka konparaziorik ere ez dauka.

Agurne: -Baiña ez jone /etxone/ esaten bota egin bihar debela? Bai...

Nati: -Ez jonat /etxonat/ entzun baiña...

Agurne: -Eta berrixa ein bihar debela esaten debe, ez dakitt.

-Eta nun zeuan hori merkatu plaziori?

Agurne: -Ba justu oin plazia dauan lekuan.

-Bertan zeuan?

Agurne: -Bertan zauan. Gero in zebeu dana bota ta haundixa ein. Baiña berta-bertan.

-Ta zuek joaten ziñaten saltzera?

Nati: -Ez. (...). Eta hori, hau plaza honetan... Gu ez giñan bajatzen berduriakin. Guk esnia. Eta arrautzak eta. Guk nehikua genduan etxekua guk jateko dana. E, Nati? Dana jaten gendunan (barre). Babak eta ortukuak eta danak jaten gendunazenan.

-Etixerik etxe partitzen zenduen?

Nati: -Bai, eta gaiñera nik partitzen naban nere tiana ere bai. Eta gero bidian errekauek ere, batzuetan San Lorentzokuak, beste batzuetan beheraoko etxekuek... Ta andra nausi samarrak zeurenak ba "hori ekarrizu ta haura ekarrizu ta bestia ekarrizu" ta errekauek ere itten genduzen; bestiendako ere. Esniak partidu ta eskolara etortzeko beratziretarako, goizao-goizao.

Agurne: -Izan gera, e, Nati, izan gaittun goiztarrak.

Nati: -Bihako goiztarrak izen, aber bestela ze ingo genduan!

Agurne: -Goiztarrak (barre).

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2025-04-29

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com